

# BALIO PROPOSAMENA

Urtero Espainian produzitutako elikagaietatik familiek **604 milioi** kilo inguru alferrik galtzen dituzte, eta “**Not Foody Waste**” produktua arazo hau ekiditeko dator.

Europan botatzen den janariaren **%40 etxeetatik** dator, eta **arazo honetan fokatuko gara**. Gure produktuaren eginkizunei esker, galera masibo hau murrizteko gai izango gara guztiok.

Bezeroak haien elikagaien iraungitzeari buruz hainbeste ez arduratzeko, eta ildo honetatik jarraituz, janaria txarto ez jartzeko lagunduko du.

Beti ahazten dugun janari hori, eta zakarrontzian amaitzen dena, NFWek bere iraungikortasuna **aurreikusiko** du. Gainera, berandu izan baino lehen, ohartaraziko digu eta zenbait errezeta **aukera** emango dizkigu.

Bestalde, NFW gailu **berritzailea** izango da, munduan ez baitago horrelakorik, eta diseinu eta erreminta originalak izango ditu. Esate baterako, errezetak eskaintzea, eta silikonazko karkasa batzuk erosi ahal izango dira aparatua umeengandik babesteko.

Amaitzeko, zentzuzko prezioa izango du (**300€** bakoitzak), kontuan hartuz **Espainian fabrikatutako** kalitatezko piezekin eginda egongo dela, eta honek **tratu txarrik egongo ez dela** esan nahi du. Halaber, gure langileek soldata duina jasoko dute. Aipatzekoa da janariaren xahuketagatiko diru-gastua saihestuko duela, horrela, urte pare batean **amortizatuko da**.